

HERRIA

Baduzularik
ahoko mina
eztia ere zuretzat
samina ■
(Betiko errana)

2015eko Urtarrilaren 15ekoa - 15 Janvier 2015 - 1,25 € - N° 3285-

ISSN 0767-7643 EUSKAL ASTEKARIA / HEBDOMADA IRE BASQUE

KULTUR MEDIATZIO EKINTZA POLLITA

Larzabaleko Manex Erdozaintzi Etxart kolegioan

"Txoriak, zoroen itsasoa",
Dantzas konpainiak Lekeitioan
emana
Arg. Kinuka



**Larzabaleko kole-
giotarrak Euro-
pako
Kultur Herri Na-
gusiko partaide**
2016. urtean, Do-
nosta Europako
Kultur Herri Nagu-

si izanen da, Poloniako Wroclaw hiriarekin batera. Hitzordua nagusi honen kari, ekintza desberdinak antolatuak datezke urte osoan, neurri eta forma ainitzetakoak...

Hori dela eta, Baxe Nafarroako Herri Antzokia elkarlanetan abiatu da Donostia 2016 egiturak kudeatzen duen "Hazitegi mugalarriak" programarekin, hezkuntza artistiko ekintzak garatzeko asmoz.

2014ko ekainean, Herri Antzotzoko kideek proposamen bat luzatu zuten Larzabalen kokatzen den ikastetxeko hezkuntza taldeari, kultur helburu desberdinak finkatzeko. Hauetan lehena Errenterian kokatzen den "**Dantzas**" konpainiaren egonaldi baten errezebitzea kolegioan berean, aste oso batez, urtarrilaren 12tik 16ra, hots aste hontan. Dantza garaikide konpainia hontan, profesionalizatzen ari diren europar dantzari gazteak aurkitzen dira (hauetan 3 euskaldun), ofizioko koreografo pare batek trebatutik.



Kolegioko 5.eko ik. Dantzas konpainiako dantzari batzuekin

Laboa, itsasoa eta Lekeitio lotzen dituen sormenetik

2014ko utzialan, Mikel Laboaren obrak inspiraturik, "**Txoriak zoroen itsasoa**" ikusgarria sortu zuten konpainiako dantzariak, Josu Mugika koreografoarekin. Sorkuntza hori abiapuntuat harturik, badu hila bete batzuk orain Manex Erdozaintzi Etxart kolegioan lan berezi bat eramaten duela Dantzas konpainiako zuzendari eta koreografo batekin, Laboa kantari-musikari-olerkariak utzi duen ondare premiatsutik gai batzuk hartzeko urtean zehar, ikasleen ikasgai desberdinetan aipatuak eta aztertutak izateko.

**Dantza garaikidearen deskubritze-
ko parada ezin hobea**

Proiektuaren parte gehiena 5.eko ikasleekin eraman da. Gelako 24 ikasleek egunero oren bat eterdiz konpainiako 6 dantzari eta maisuarekin gorputz espezioa eta dantza lantzen ari dute. Laboaren kantueta oinarrituz, aste bukatuko sorkuntza bat ere lantzen da. Gela hortako 15 ikasle nahiantek klase denboratik kanpo bigarren sorkuntza bat ere lantzen ari dute. Bi sorkuntzak (bakotzak 10 bat minutu) kolegioko beste ikasleei aurkeztuko dituzte urtarrilaren 16an, ostiral aratsaldean. Oronen buru, esperientzia hori, ikastetxeko ikasle guzuekin partekatua da. Aste oso batez, dantza eta musikaren in-

guruan murgiltzen ari dira Manex Erdozaintzi Etxarteko ikasle, erakasle eta langile guztiak...

**Donostiako Egia antzokian
urtarrilaren 17an**

Abentura urtarrilaren 17an bururatuko da Donostiako Egia-Gazteszena antzokian. Bertan, 5.eko ikasleek bi sorkuntzak aurkeztuko dituzte publikoaren aitzinean, hor izanen delarik ere Donostiako Maria Reina ikastegiko adin bereko ikasle talde bat, xede berdinaren inguruan bi sorkuntza landurik. Autobus bat antolatua izanen da kolegioko artista-gaiak, heien erakasle, buruso eta sustengatzaileak Donostiara eramateko egun hortan.

Proiektuaren segida

Ondoko aste eta hilairetan ere, Laboak bere kantueta antzertu gaiak manera bereziz lantzeko dituzte, olerkariaren prismaik... Parada izanen dute ere artista maisua ongi ezagutu dituzten beste presuna batzuen ezagutzeko, hauetan Josu Mugika koreografoa, Inaki Salvado musikagile eta pianista famatua, Bostoneko Anne Rea-riek argazkilaria... Ondoko kultur sasoian ere Baxe Nafarroako Herri Antzokiak "**Txoriak**" ikusgarria programatuko du... Ez da dudarik, Larzabaleko Manex Erdozaintzi Etxart artista mintegi bikaina izanen dela urte hastapen hontan eta esperientzia baikorra biziko dutela horgo ikasle, erakasle eta dantzariak!

B.M.